

## PATOLOGIA ETA OINARRIZKO ZAINKETAK

OCW UPV/EHU 2015

### AUTOEBALUAZIOA

#### ERANTZUN HURRENGO GALDERAK:

#### ERIZAINZAKO OINARRIZKO ZAINKETAK

**1. Aukera erantzun zuzena:**

- a) Sukarra dagoenean izerdia egotea oso zaila izaten da.
- b) Takikardian, bihotz erritmoa 50-tik beherakoa izaten da.
- c) Oxigeno saturazioaren balio normalak %97-100 bitartean kokatzen dira.
- d) a eta b zuzenak dira.
- e) Guztiak zuzenak dira.

**2. Aukera ezazu bizi konstante-zeinuetan eragiten duten faktoreak:**

- a) Adina.
- b) Arraza.
- c) Farmakoak.
- d) a eta c
- e) Guztiak zuzenak dira.

**3. Identifika itzazu presio arterialaren aldaketa fisiologikoan eragiten duten faktoreak:**

- a) Adinarekin presio arteriala igotzen da.
- b) Beroak presio arteriala jeisten du.
- c) Ariketa fisikoak presio arteriala igotzen du.
- d) a eta b zuzenak dira.
- e) Guztiak zuzenak dira.

**4. Zeri deritzo bentrikuluen uzkurketak odolean eragiten duen presioari?**

- a) Tentsio arterial sistolikoa.
- b) Tentsio arterial diastolikoa.
- c) Gastu kardiakoa.
- d) Erresistentzia periferikoak
- e) Presio intrakraneala.

- 5. Farmako baten administrazioan gogoan izateko arauen artean, zein ez da ageri?**
- a) dosi zuzena
  - b) ordu zuzena.
  - c) erizain zuzena.
  - d) gaixo zuzena.
  - e) farmako zuzena.
- 6. Farmako administrazio bide topikoen artean zeiz ez da ageri?**
- a) Otikoa.
  - b) Hezur barnekoa.
  - c) konjuntiboa.
  - d) Ahokoa.
  - e) Nasala.
- 7. Zergatik erabilzen da farmako bat hartzeko arnas bidea gero eta gehiago?**
- a) ekintza azkarrekoa delako.
  - b) Kontrako efekto gutxi duelako.
  - c) Efektua lortzeko dosi gutxiago behar delako.
  - d) a eta b.
  - e) Guztiak zuzenak dira.
- 8. Identifika itzazu kartutxo presurizatuaren desabantailak:**
- a) Talka orofaringeoa.
  - b) Ez dauka dosi zenbatzailerik.
  - c) Ozono geruzarako kaltegarria da.
  - d) Gehiegizko erabilpena ematen da.
  - e) Guztiak desabantailak dira.

**ERANTZUNAK:**

- 1.c**
- 2.e**
- 3.e**
- 4.a**
- 5.c**
- 6.b**
- 7.e**
- 8.e**